

Garona itxia uztea edo berriro zabaltzea, biak kezka iturri

GARONA itxi zen garai-ko ospakizunak urruti daude. Lasaitua hartu genuen gehienok, zentral nuklearrak ahazten has gintezkeelakoan.

Orduko hartan, ez nuen inon irakurri itxi ondoren zentrala desmuntatzeko plana. Frantzian, eta energia nuklearrak pisu handia duen Europako beste estatu batzuetan, hainbat zentral ixteko asmoa iragartzearekin batera desmuntatzeari buruzko zalantzak azaleratu ziren, baita ez-ezagutza ere; orain arte ez baita zentral nuklearririk desmuntatu osorik. Eman den antzeko aurrekari bakarrean, zentralako hainbat atal desmuntatu ondoren material erradioaktiboaren edukiontzia eta haren inguru osoa lurrez estali eta hainbat mende irauteko moduko mendi bilakatu nahi baita. Hori bai, denbora horretan guztian inork hurbiltzerik izango ez duen mendia.

Endesa Garona irekitzearen alde azaldu da, eta laster jakingo dugu Iberdrolaren iritzia, ziurrenik irekitzearen aldekoa ere bai. Espainiako Gobernuak urte hasieran egindako arautegi aldaketa erabiliko da aitzakia gisa. Inon ez dugu irakurriko zer arazo dakarren zentral nuklearra ixteak, ez eta dirutza eskerga xahutu daitekeela itxieraren ondorengo arazo larriak konpontzen, ez eta ere askoz merkeagoa dela behar diren inbertsioak egin eta aurrera jarraitzea.

Hamar urterako zabalduko digute berriro Garona, eta hamar urte horietan Fukushima erradioaktibitateari aurre egiteko moduez egun dakiguna baino gehiago ikasiko dugulakoan nago. Halaber, bitarte horretan eskarmen-
tu handiagoa pilatuko da Frantzian, zentralak desmuntatzearen alorrean.

Ez naiz energia nuklearraren aldekoa eta une honetan nire desioa Garona ahalik eta lasterren desagertzea da, baina une honetan itxiz gero Garona ia betiko gure artean izango da, eta agian hamar urte barru itxiz lehenago desagertuko da. Bihoitzez nahi dut Garona ixtea, baina zein da horretarako unerik egokiena? ■



DANI BLANCO

Ezustea Lekeitioko Lumentza kobazuloan

Ustekabea, bi bisonteren eta zaldi baten buruaren margoa aurkitu dituzte Lumentza koban. Diego Garate arkeologoak *Elburj* aldizkarian esan duenez, "Joxe Miel Barandiaranek 1926an induskatu zuen, eta gerora ere jende pila bat pasa da handik. Baina ez dira ikusten errazak; eskala oso handia da, eta erliebera egokituta daude, gainean idatzia-eta dituzte... ez da harriztekoa oharkabea geratzea".

ttiki.com/65152
(Euskaraz)

Japoniako enpresa batek publizitatea egin nahi du ilargian

Otsuka izeneko enpresa japoniarra 2015eko urrian bere produktu baten kilo bat hauts sartu eta ilargira bidaltzeko asmoa du. Horrela, datorren hamarkadan ilargiratu diren astronautek indarrak berreskuratzeke zer edana izango dute. Eta horretarako 500.000 dolar ordaintzeko prest daude.

ttiki.com/65153
(Frantsesez)

Zikloiak poloetarantz migratzen ari dira

Azken 30 urteetan, ipar hemisferioan hamarkadako 53 kilometro iparrera jo dute zikloiek; hego hemisferioan, 61 kilometro hegora. Ekuatore inguruko herrialdeetan lasaigo lo egin dezakete, zikloiei dagokienez behintzat, baina gainerakook badugu kezkatzeko beste arrazoi bat.

ttiki.com/65154
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16